



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 18a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2021eko abenduaren 14ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4.1. artikuluari beste letra bat, n), gehitzeko zuzenketa.

n) letra erantsiko zaio 4.1 artikuluari. Hauxe izanen du testua:

“n) Familiei aitorpena eta sostengua ematea, adingabeen garapen normalerako babesingurunea diren aldetik”.

Zioak: Legearen printzipio gidarien artean egon behar da familientzako sostengua, horiek baitira adingabeen lehen babeseremua eta, beraz, inguruabar normaletan adingabeek beren garapenerako izan behar duten tokia.

2. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

4.2. artikulua a) letra aldatzeko zuzenketa.

4.2. artikuluko a) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“a) Sarean lan egitea, ingurune komunitariotik, adingabeen arretaren eta haien eskubideen defentsan eta sustapenean esku hartzen duten administrazio publikoen eta erakunde pribatuen artean.

Ukitutako toki eta foru erakundeek eta departamentuek elkarri emanen diote beren jarduketan helburu, plan, metodologia eta jarraipenaren berri; horretarako, eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak beharrezkoa den prestakuntza bultzatuko du”.

Zioak: Departamentuari buruzko aipu egokia da “eskubide sozialen arloko eskumena duena” dioena. “Eskubide Sozialak” izen bat da. Eskubide sozialak horren xede eta arloa dira.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

5.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sustatuko du Nafarroako toki erakundeek beren gain har dezaten lehentasun hori, eta hitzarmenen bidez elkarlanean arituko dira eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuaren laguntza eta aholkularitzarekin beren plangintza garatu edo zehaztu nahi dutenekin”.

Zioak: Departamentuari buruzko aipu egokia da “eskubide sozialen arloko eskumena duena” dioena. “Eskubide Sozialak” izen bat da. Eskubide sozialak horren xede eta arloa dira.

4. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

7.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Era berean, haur eta nerabeengan eta haien eskubideen erabileran eragina duten planak eta protokoloak ebaluatuko dituzte, bai eta izaera orokorreko edozein erabaki administratibo ere, eta eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuaren sostengua izaten ahalko dute horretan”.

Zioak: Departamentuari buruzko aipu egokia da “eskubide sozialen arloko eskumena duena” dioena. “Eskubide Sozialak” izen bat da. Eskubide sozialak horren xede eta arloa dira.

5. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

9.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

9.2. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Era berean, eskubide horiek eraginkorrak izan daitezten beharrezkoak diren legegintza-, administrazio- eta beste edozein izaeratako neurri guztiak hartuko dituzte”.

Zioak: Eskubide bat eraginkor egitea ezin zaio baldintzatu baliabide-eskuragarritasuna egoteari. Eskubideak, subjektiboak eta perfektuak izanez gero, Administrazioak erantzun behar die, beharrezkoak diren baliabide guztiak paratuz haiek betetze aldera.

6. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10.1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

10.1. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Nafarroako Administrazio Publikoek behar diren ekintzak gauzatuko dituzte haur eta nerabeen eskubideek zabalkunderik handiena izan dezaten lortzeko, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren edukiak eta Haurren Eskubideen aldeko Batzordearen lanak ezagutarazteko ekitaldiak eta

jardunaldiak sustatuz, zeinetan parte hartuko baitute eskubide horiek eraginkorrak izan daitezten laguntzen duten eragileek eta, bereziki, familiek”.

Zioak: Familiak orokorrean, eta ez harrera-familiak bakarrik, dira haurren eskubideak bete daitezten bermatu behar duten eragile nagusiak. Horregatik jo beharra dago haiengana ere haien sustapen eta ezagutarazpenerako.

7. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

10.3, 4, 5 eta 6 artikulua aldatzeko zuzenketa.

10. artikuluko 3, 4, 5 eta 6. apartatual aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“3. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak Nafarroan haurren ongizatearen jarraipena egiteko sistema instituzionalizatu bat izanen du, toki mailako nahiz foru erkidegoaren mailako informazioa jasoko duen datu sistema batekin, arlo horretako politiken norabidea ezartzeko eta informazio hori zabaltzeko, gizartearen sensibilizazioari begira.

4. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak txostenak eskatzen ahalko dizkio Nafarroako gizarte laguntzako Etika Batzordeari, adingabeen eskubideen eraginkortasuna indartzeko.

5. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentua elkarlanean arituko da adingabeentzat eskuragarriak diren laguntza telefonoak dituzten erakundeekin, zerbitzu horien ezagutarazpena errazteko eta haien esku-hartzea antolatzeke, dei horien bitartez beharra dagoela antzematen denean.

6. Eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak lagundu eta sustatuko du jardunbide egokiak sor daitezten, eta prestakuntza programak eta gogoetarako guneak garatuko ditu zerbitzuetan, haiek ikaskomunitate gisa sustaturik”.

Zioak: Departamentuari buruzko aipu egokia da “eskubide sozialen arloko eskumena duena” dioena. Gizarte-zerbitzuak dira haien xede eta eskumen-esparrua, eta adingabearen babeseremua gizarte-zerbitzuenean behar da kokatuta egon.

8. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

16. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“Nafarroako administrazio publikoek adingabeen pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna errespetatuko dute eta askatasun horren baliatzea bermatzeko urratsak eginen dituzte, haien adina eta heldutasuna aintzat harturik”.

Zioak: proposaturiko testuak ez du esku sartzen guraso-ahalean, eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioko 14. artikuluan xedatuaren araberagokoa da, alde handiz.

9. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

18. artikuluari 6. apartatua gehitzeko zuzenketa.

18. artikuluari 6. apartatua gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

“6. Nafarroako administrazio publikoek adingabeen adierazpen askatasuna errazten duten baliabideak sustatuko dituzte arlo guztietan”.

Zioak: Artikuluaren testuak adierazpen-askatasuna aipatzen du, baina gero ez da bertan arautzen.

10. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzeko zuzenketa.

19. artikulua 2. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“a) Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean, osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzkoan, adingabe helduaren baimenari buruz xedatua”.

Zioak: Legeria zibilak xedatuari jarraituz, guraso-boterea beti baliatzen da adingabearen interes gailenaren mesedetan; batez ere, adingabeak erabakirik hartzeko heldutasunik ez daukan kasuetan. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak errespetatu egiten ditu printzipio horiek eta, horrenbestez, 12

urte baino gutxiago dituzten adingabeen kasuan baimena ordezkari bidez ematen da, ezertan galarazi gabe entzunak izan eta haien iritzia kontuan hartua izatea. Ez dago araubide hori aldatzeko arrazoi zientifiko, tekniko ez eta juridikorik ere.

11. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikuluko 2. apartatuko b) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: 19.2. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketarekin bat etortzea. Legeria zibilak xedatuari jarraituz, guraso-boterea beti baliatzen da adingabearen interes gailenaren mesedetan; batez ere, adingabeak erabakirik hartzeko heldutasunik ez daukan kasuetan. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak errespetatu egiten ditu printzipio horiek eta, horrenbestez, 12 urte baino gutxiago dituzten adingabeen kasuan baimena ordezkari bidez ematen da, ezertan galarazi gabe entzunak izan eta haien iritzia kontuan hartua izatea. Jadanik arau horretan jasota dago heldutasunik gabeko adingabeari entzutea eman beharko zaiola.

12. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikuluko 2. apartatuko c) eta d) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: 19.2. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketarekin bat etortzea. Legeria zibilak xedatuari jarraituz, guraso-boterea beti baliatzen da adingabearen interes gailenaren mesedetan; batez ere, adingabeak erabakirik hartzeko heldutasunik ez daukan kasuetan. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak errespetatu egiten ditu printzipio horiek. Aipatu c) eta d) letra horien xedea da legezko ordezkari erabakimena ordezte, profesionalen iritzia baldintzatuz guraso-boterea baliatzen dutenez bestelako figura batzuekin, susmoak izateko arrazoirik izan gabe guraso-botere hori adingabearen interes gailenaren mesedetan baliatzeari buruz.

Gainera, d) letraren testua lausoa da.

13. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikuluko 3. apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

19. artikuluko 3. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Nafarroako administrazio publikoek, erabat errespetaturik legedi zibila, osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzko azaroaren 8ko 17/20’190 Foru Legea eta adingabearen interes gailenaren mesedetan baliatutako guraso-boterea, bermatu eginen diete haur eta nerabeei beren historia klinikoaren eta historia sozialaren konfidentzialtasunaren babesa, halakorik baldin badute, edo beren egoera sozioekonomiko eta familiarrari buruzko beste edozein datuaren konfidentzialtasunarena”.

Zioak: Historia klinikoaren konfidentzialtasunak ezin du erakarri gurasoek ezin izatea horretarako irispiderik, legediak ezartzen duenari jarraikiz jokatuz gero. Afera hori AEPDK jada ebatzita dauka bere 222/2014 txostenean.

Gurasoek modua izan behar dute historia klinikorako irispidea izateko, Kode Zibilak jasotzen dituen betebeharrak betetzerakoan. Bakar-bakarrik adingabeak adinagatik edo adingabe heldua izateagatik baimena emateko gaitasuna daukanean, orduan bakarrik blindatu beharko da historia klinikorako irispidea, salbu eta adingabeak horretarako baimena ematen duenean.

17/2010 Foru Legearen gaur egungo testua horrekin bat dator. Ez, baina, lege proiektuan jasotzen den testua.

14. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

19. artikuluko 3. apartatuko hirugarren paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Ordezkaritzaren bitartezko baimena ematea dagokien pertsonen artean desadostasuna dagoenean, Kode Zibileko 156. artikulua xedatuari helduko zaio”.

Zioak: Proposatutako araubidea kontraesan dago artikuluko horrekin eta ikerketa biomedikoari buruzko uztailaren 3ko 14/2007 Legeak xedatzen

duenarekin. Gurasoen artean desadostasunik egonez gero, adingabeari entzutea eman osteko epailearen esku-hartzeari ezin zaio iskin egin, bizi-urgentziarik ez egonez gero; eta horren esanahia ez da osotasunerako arrisku larriaren esanahia.

15. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

19. artikuluko 8. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

19. artikuluko 8. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, erabat errespetaturik legeria zibilak eta Osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak xedatzen dutena, bai eta adingabearen interes gailenaren mesedetan guraso-ahalaz egiten den erabilera ere, bermatu egiten du osasungintzako ekintza horien ondorioz oinaze fisiko, psikologiko edo saihegarria den beste edonolakorik ez jasateko eskubidea”.

Zioak: Artikulu honi aurkezturiko gainerako zuzenketen ildo berekoak. Administrazioak ezin du bereganatu adingabearen interes gailenaren mesedetan baliaturiko guraso-boterearen erabilera, eta ezin dira alde batera utzi hala jokatze modua izan dezan eragozten duten bermeak.

16. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

20. artikuluko 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 1. apartatuko lehen paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ikaspostu-kopurua egokia eta behar adina izan dadila bermatuko du, adingabeen eskolatzeari ziurtatzeko, bermatzearen familiek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza-mota aukeratzeko daukaten askatasuna.

Protokolo bat ezarriko da, hezkuntzaren eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskudun diren departamentuen, ikastetxeen eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen ordezkarien parte-hartzearekin, hezkuntza-laguntza behar duten ikasleek gizarte eta hezkuntza aldetik duten zaurgarritasun egoera berriaz zehazteko irizpideak homogeneizatzeko”.

Zioak: Espainiako Konstituzioak xedatzen duenez, Administrazioak bitartekoak paratu behar ditu bermatze aldera familiak modua izan dezaten beren seme-alaben hezkuntza-mota beren sinesmen moral eta erlijiosoen arabera aukeratzeko.

Bestalde, gizarte-zerbitzuen alorreko eskumena duen departamentua aipatzen da, gainerako zuzenketen ildo beretik.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikularen 2. apartatua aldatzeko zuzenketa.

20. artikularen 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zainduko du eskolako hezkuntzak eman diezaioala adingabeari prestakuntza integrala, bere nortasuna tankeratzeko aukera emanen diona, adingabearen gaitasun eta trebetasunen garapenari zuzenduta, tolerantzia, elkartasuna, askatasuna eta diskriminaziorik eza balia ditzan.

Hezkuntza emozionala eta pertsonalizatua ere izanen da, haurren eskubideak sustatzen dituen, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioari jarraituz, eskolako espazio, jarduera eta ordutegi orotan, horrela errazturik autonomiaz esku har dezaten Nafarroaren garapen prozesuan eta erkidego honetako herritar bezala.

Tutoretzak eta eztabaidak sustatuko dira, foru lege honetan jasotako balio eta eskubideei nahiz unean-unean kezagarri zaizkien beste batzuei buruzkoak”.

Zioak: Haurren heziketa ez da eskolan amaitzen, eta handik kanpora beren familien zeregina da.

Era berean, tutoretzen eta eztabaiden bitarteko prestakuntzan, haietako batzuk sartzeak kanpo uzten ditu halaber oso muntadunak diren beste batzuk.

18. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 3. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Ikastetxeek hezkuntza arloko departamentu eskudunak ezartzen dituen curriculumak, instalazioak, langileak eta baldintzak izanen dituzte. Baldintza horiek betetzen ez dituztenek eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak ezartzen dituenak bete beharko dituzte, horien barne direla prestakuntzakoak, eta hazkuntza-moldeari dagozkion gutxieneko batzuk, bermatzekoak arreta emozional egokia izatea eta bizikaltatea iristea alderdi psikofisiko, emozional eta sozialetan”.

Zioak: Eskubide Sozialetako Departamentuak legean eduki behar duen izendapenari buruzko beste zuzenketa batzuen ildotik.

19. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikularen 5. apartatua aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 5. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bideratuko du adingabeek ongi ezagut ditzaten Nafarroaren errealitate historiko eta kulturala, bai eta bertako errealitate sozial, natural eta instituzionala ere, eta gaitasunak lor ditzaten edozein motatako erronka eta zailtasunei aurre egiteko. Eskola-porrota prebenitzeko neurri espezifikoak hartuko ditu”.

Zioak: Testu horrek Nafarroako errealitatea ezagutzen laguntzearen helburua errespetatzen du.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

20. artikularen 5. apartatua aldatzeko zuzenketa.

20. artikuluko 5. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bideratuko du adingabeek ongi ezagut ditzaten Nafarroaren errealitate historiko eta kulturala, bai eta bertako errealitate sozial, natural eta instituzionala ere, eta gaitasunak lor ditzaten edozein motatako erronka eta zailtasunei aurre egiteko. Eskola-porrota prebenitzeko neurri espezifikoak hartuko ditu”.

Zioak: Testu horrek Nafarroako errealitatea ezagutzen laguntzearen helburua errespetatzen du.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28. artikuluko 5. eta 6. apartatuak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Migratzaileen estigmatizazioa ekiditearren, ez dira desberdin tratatuak izan behar, ez badago bertako populazioak dituen bestelako baldintzapenik. Horregatik, apartatu horietan xedatzen dena ulertu behar da 23.4, 27 eta 20.9 artikuluetan jasota dagoela.

22. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

28. artikuluko 1. eta 3. puntuak aldatzeko zuzenketa. Kulturartekotasunari dagokionez. Honela idatzita geratuko lirake:

“1. Nafarroako administrazio publikoek sustatuko dute gizartearen sentsibilizazioa eta adingabe migratzaileekin edo beste kultura batzuetakoekin diharduten langileen prestakuntza, honako gai hauei buruz: migrazio-prozesu eta -errealitateak, migrazio-doluak, kulturarteko bizikidetzak, gure erkidegoan dauden gutxiengo etnikoetako haur eta nerabe adoptatuen egoera, eta arrazakeriaren, ijitoaurkakotasunaren eta xenofobiaren kontrako borroka.

2. (...).

3. Nafarroako administrazio publikoek prebenitu egingen dituzte portaera arrazistak eta administrazio publikoen arrazakeria- edo diskriminazio-kutsudun ekintza oro, eta adingabeen arteko elkarbizitza sustatuko dute, diskriminaziorik onartu gabe”.

Zioak: Ijito-herriaren aurkako berariazko diskriminazioa ikusarazi beharra dago. Haren elkartearen erreibindikazio bat da eta, bestetik, arrazakeria instituzionala prebenitzea ere du xede.

23. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

I. tituluko IV. kapituluak aldatzeko zuzenketa.

IV. kapituluaren izena aldatzen da, hau izan dadin:

“IV. KAPITULUA. Adingabeen betebeharrak”.

Zioak: Herritartasun osasuntsu eta demokratiko batek behartzen du norbanakoak eskubideak izatera eta bere gain betebeharrak hartzera; baita adingabeek ere.

24. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

29. artikulua aldatzeko zuzenketa.

29. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“29. artikulua. Adingabeen betebeharrak.

1. “Legeria zibilak adingabeei beren guraso eta legezko ordezkarietara ezartzen dizkien betebeharez gain, eta familia-, hezkuntza- eta gizarte-bizitzan parte hartzeari dagokionez, betebeharrak izanen dituzte, besteak beste:

a) Derrigorrezko irakaskuntzan zehar ikastea, horrela beren prestakuntza gauzatu eta beren nortasuna osoki garatzeko. Ikastetxera joan beharko dute eta bertan bizikidetzak-arauek errespetatu beharko dituzte.

b) Ikasketak egiten ari diren ikastetxeko irakasleak eta gainerako langileak, bai eta ikaskideak ere, errespetatzea beti.

c) Aitortzen zaizkien eskubideen titulartasun eta erabilaren berezko betebeharrak eta erantzukizunak beren gain hartu eta betetzea.

d) Gizarteko bizikidetzak-arauekin bat datorren portaera zibikoa edukitzea, tolerantzia eta beste pertsonen eskubideen errespetuan oinarri hartuta.

e) Ingurumena eta ondare kultural eta historikoa errespetatzea eta horiek zaintzen eta hobetzen laguntzea.

f) Jabari publikoko ondasunak errespetatzea; bereziki, hiri-ondarea.

2. Gurasoek eta legezko ordezkarietara adingabeei lagunduko diete beren betebeharez ohartzen.

3. Nafarroako administrazio publikoek bultzalana egingen dute ekintzak egin daitezkeen, sustatzeko adingabeek beren betebeharrak bete ditzaten”.

Zioak: Herritartasun osasuntsu eta demokratiko batek ezinbestez eskatzen du eskubideak

gozatzea eta betebeharrak betetzea, baita adingabeek ere. Betebehar horiek argiak behar dute izan, eta adingabeei inguru-mingururik gabe esleituta egon, nahiz eta, betiere, adingabearen adinari eta heldutasunari egokituta.

25. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikularen 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

31. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“3. Nafarroan, haurrentzako laguntza eta babes politiken plangintzak hurrengo printzipioak izanen ditu gidari: erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, inklusioa, familia babestea adingabearen garatze-ingurune natural bezala, esku-hartze ordezkia eta normalizatua, pluraltasuna, erakundearteko lankidetzeta, solidaritatea eta parte-hartzea. Plangintza hori genero ikuspegiaz gauzatu da, haren jarraipena eta ebaluazioa egitea ahalbidetuko duten helburuak eta adierazleak zehaztuz, datuak sexuaren arabera bereizita”.

Zioak: Politika publikoen plangintzan aintzat hartu behar da familiaren babesa eta errespetua, adingabearen ingurune naturala den aldetik.

26. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikularen 4. apartatua aldatzeko zuzenketa.

31. artikuluko 4. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“4. Nafarroako Gobernuak behar diren sistematik eta mekanismoak ezarriko ditu administrazioen arteko elkarlana arlo guztietan bermatzeko, batez ere familiaren, hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte zerbitzuen arloetan, eta bereziki toki erakundeekin eta beste erakunde publiko batzuekin. Haien ekarpena eta familien eta adingabeen ordezkarietara aintzat hartuko da plan estrategikoak egiteko”.

Zioak: Plangintzak izaera estrategikoa behar du eduki, eta urtealdirako ekintzetan xehakatu behar da, ebaluazio eta kontu-ematearen xede izanen direnak.

27. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

31. artikuluari 6. puntu berri bat gehitzea. Diagnostikoa, planifikazioa eta ekintzen programazioa. Honakoa luke testua:

“6. Nafarroan haurren arreta eta babesera bideraturiko politiken alorreko diagnostikoa, planifikazioa eta ekintzen programazioa halaber egonen dira oinarrituta Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretan haur eta nerabeekin diharduten tokiko erakunde komunitario eta sareen kooperazioan, lankidetzan eta sustapenean”.

Zioak: Funtsezkoa da legean jasotzea erkidegoaren eta erakunde langintza, bai eta toki-mailan eta haur eta nerabeengandik hurbilen dagoen ingurunean elkarlana egitea ere beharrezkoa dela prebentzio askoz ere integralagoa erdietsi ahal izateko.

28. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

32. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

32. artikuluko 1. apartatuko bigarren paragrafoa aldatzen da. Hona testu berria:

“Nafarroako toki erakundeek eta haur-gaietako erakunde laguntzaileek zilegi izanen duteskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuari eskatzea aipatu protokoloari buruzko informazioa, horrek ezertan galarazi gabe hari buruzko publikitate aktiboa, gardentasunari buruzko foru araudiari jarraikiz”.

Zioak: ebaluagarritasun-protokoloari buruzko gardentasuna areagotu nahi da.

29. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

32. artikularen 2. apartatuko d) letra aldatzeko zuzenketa.

32. artikularen 2. apartatuko d) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“d) Eskubide sozialen arloko eskumenak dituen departamentuko unitateek eta organismoek, haurren ongizatearen jarraipen instituzionalizatuaren ardura duen organismo edo unitatearekin elkarla-

nean, zehaztuko dute zein diren ebaluazio galderak, haien tipologia eta diseinua; horrez gain, prozesua koordinatu eta gainbegiratzearen erantzukizuna ere izanen dute, eta haiek komunikatuko dituzte, aipatu organismo edo unitatearen bitartez, 31.2 artikuluan jasotzen den foruplangintzari dagozkion emaitzak, konklusioak eta gomendioak. Nafarroako toki erakundeei ere laguntzen ahalko diete haienak prestatzen”.

Zioak: Departamentu eskudunari buruzko gainerako zuzenketen ildotik.

30. ZUZENKETA

**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK
AURKEZTUA**

33.3 b) artikulua aldatzeko zuzenketa

Testua honako honen bitartez aldatuko da:

“b) Toki erakundeekin elkarlanean aritzea haien eskumenekoak diren familiarentzako laguntzarako zerbitzuak garatzen, bereganatuz arrisku-egoeretan neurriak egikaritzearen zeregina noiz eta, toki erakunde eskudunen lana denean ere, horiekin adosten baitute aipatu zeregina bereganatzea kasuaren konplexutasunagatik edo bitartekorik ezagatik.

Desadostasuna egonez gero, hasiera batean alderdiek zilegi izanen dute desadostasun hori 40. artikuluan aurreikusitako batzordeen esku uztea, edo haiek horretarako erabakitzen dituzten bideak jorratzea”.

Zioak: Laguntza espezializatuko zerbitzuak betiere arituko dira ordezkio moduan, beharrezkoa izanez gero.

31. ZUZENKETA

**EH BILDU NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

33. artikuluko 2. puntuari beste bi letra berri gehitzeko zuzenketa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak. Honako testu haiek izanen lituzkete:

“l) Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen akreditazioa, ikuskapena eta kontrola.

m) Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretan haur eta nerabeen alorrean diharduten erakunde komunitarioek kudeaturiko baliabide eta zerbitzuak sustatzeko udal-ekintzen aldepena eta gainbegiratzea”.

Zioak: Erakunde komunitarioen zereginaren berri emateak eta Nafarroako Foru Komunitateak haiekiko bereganatu behar duen eskumena agerian jartzeak daukaten garrantzia.

32. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA
TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

34. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa.

34. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Nafarroako toki erakundeek, gainera, eginizun hauek betetzen ahalko dituzte, Foru Komunitateko Administrazioan eskudun den organoak eginiko kudeaketa-esleipenen bidez, aurretiaz egoki den hitzarmena eginda, zeinak esleipenaren iraunaldi osorako behar besteko finantzaketa jasoko baitu:

a) Adingabeen zaintza gauzatzeko jarduketa material, tekniko edo zerbitzukoak.

b) Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean aritzea, ikertzen, ebaluatzen, erabakiak hartzen, esku hartzen, jarraipena egiten eta adingabeak familian eta gizartean integratzen, foru lege honetan arreta eta babeserako aurreikusten diren jarduketan esparruan.

c) Foru Komunitateko Administrazioarekin lankidetzan jardutea erantzukizun penala duten adingabeen familia- eta gizarte-integrazioarako jarraipen- eta aldepen-ekintzetan”.

Zioak: Gai honetan, toki-erakundeentzako kudeaketa-esleipenak erabiltzea zeharo salbuespenezkoa izan behar da, eta berme guztiez hornitua. Horregatik, 15/2004 Foru Legearen 39. artikulua xedatzen duena ñabartu egin nahi da, argi utzirik ezen hitzarmenek esleipenaren aurretiazkoak beharko dutela izan, eta iraunaldi guztirako diru-hornidura egokidunak.

Gainera, ez da egokitzat jotzen baimenduta egon dadin esleipena egiterik toki erakundeei eta oinarritzko laguntzari, haiek erantzukizun penala duten adingabeei ezarritako neurrien exekuzio materialean laguntzeko, ez baitute beharrezkoa den espezializazio tekniko eta prestakuntzarik. Eskumen-betetzeari dagokionez jauzi bat egitea

da hori, eta ez dago oinarrizko laguntzaren esparruan, eta ez luke egon beharko.

33. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

II. tituluko III. kapituluaren izena aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“III. KAPITULUA. Familia, erkidego, entitate laguntzaile eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekiko ekintzak”.

Zioak: Prebentzio-langintzarako hainbesteko garrantziko den zeregina betetzera irits daitezkeenez, beharrezkoa da jasota uztea komunitatearen, entitate laguntzaileen eta erakunde komunitarioen aipamena.

34. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

35. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa.

35. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“2. Hala politika fiskalean nola Nafarroako Gobernuak ematen dituen gizarte-, osasungintza- eta hezkuntza-prestazio guztien kalkuluan, kontuan hartuko da seme-alaben kopurua eta, kasu denean, haiek desgaitasunen bat izatea ere, kasuan kasuko zenbatekoa zehazte aldera”.

Zioak: Nafarroak bere zerga- eta tributu-autonomia familiak babesteko behar du erabili eta, horrekin, haurren premiei erantzuteko, familien gastu-ahalmena aintzat hartuz seme-alaba kopurua edo desgaitasuna bezalako faktoreen arabera. Halaber, familientzako prestazio nagusien zehaztapenak, eta ez Errenta Bermatuarenak bakarrik, inguruabar horiek kontuan hartu behar ditu.

35. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

35. artikulua 8. apartatua aldatzeko zuzenketa.

35. artikuluko 8. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“8. Foru Komunitateko Administrazioak berriazko laguntza lerroak mantenduko ditu familia ugariantzat, harrera-familientzat eta familia gurasobakarrentzat edo gurasobakartasun-egoe-ran daudenentzat”.

Zioak: Legeak bermatu behar du premiarik handieneko familia-mota guztientzako laguntzak aurreikusten direla.

36. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

III. kapituluaren 3. atal berri bat eransteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“3. atala. Komunitatea, komunitetasuna eta haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak.

X. artikulua. Komunitatea eta haur eta nerabeen babeserako metodologia komunitarioa

1. Komunitatea unitate sozial bat da, ezaugarri, interes, elementu edo funtzioaren bat amankomunean duten kideak dituen, taldekotasun-kontzientziadunak eta eskualde geografiko jakin batean kokatuak, zeinetan pertsonak elkarrekintza mamitsuagoa baitaude beren artean, ezen ez beste testuinguru batean.

2. Komunitetasuna gizarte- eta hezkuntza-lan publikorako metodologia bat da, lan hori komunitateko kideen artekoa nahiz horiek Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzu eta zentro publikoekin eginikoa dela ere. Horren bitartez erantzunkidetasun soziala garatzen da erantzukizun publikoko maila desberdinak dauzkaten eragileen artean, horretarako plan, proiektu eta baterako ekintzen bidez.

3. Toki-komunitatea da, auzoek, herriek eta ibarrek, haien elkarteek eta bizilagun-sareek osatua, Nafarroan haurren eta nerabeen babesaren maila komunitarioa osatzen duena. Lurralde-testuinguru sozial horretantxe daude kokatuta familiak, eta, halaber, hor ehuntzen dira sostengurako gizarte-sareak, eta da nagusiki garatzen haurren, nerabeen eta haien familien bizitza publikoa haurtzaroan eta nerabezaroan zehar. Horregatik, bereziki garrantzitsua da gizarte-babeseko neurriak hartzea familiari eta komunitateari laguntzeko, haiei baliabideak helaraziz, haur eta nerabeen beharrezkoen haien ingurunean erantzutera bideratuak.

4. Komunitateak erantzukidetasun-esparru bat eskaintzen du, haur eta nerabeak beren ingurune-

an babestuak izatearen sustapenean, batetik herritarrentzat, bizilagun diren aldetik, eta bestetik zerbitzu eta zentro publikoetako profesionalentzat. Kontua ez da proiektu isolatuak deslari abiaraztea, baizik eta modu desberdinetan eszenatokiak eraikitzea, toki bakoitzean dagoen ehundurarekin konektatuak eta errotuak. Komunitatearekiko eta komunitatearengandiko lana egiten da haur eta nerabeen sustapenean helburuarekin komunitatean bertan oinarrituta dauden proiektu eta ekimenekin, zerbitzu eta zentro publikoen babeslana halaber indartuko dutenak.

5. Tokiko komunitateak bateralekuak eta elkar-guneak sortzen ditu komunitate bateko sektore desberdin guztientzat. Tokiko komunitatea ohartematen da prebentziorako eta haur eta nerabeen babeserako nahitaezkoak diren lokarri sozialen dentsitate-, iraupen- eta intentsitate-esparru ego-kia eskaintzen duen lurralde-oinarri bezala.

X. artikulua. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak.

1. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitario dira harako elkarte, federazio, fundazio edo bestelako entitate sozial haiek, zeinek plan, proiektu eta ekintza komunitarioak egiten baitituzte Foru Komunitateko auzo, herri eta ibarretako haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko.

2. Aipatu entitate sozialak honakoek osatuak dira:

a) Hezitzaile komunitario gisa jardutearen zeregina beren gainean hartzen duten toki-komunitateko bizilagunek.

b) Haur eta nerabeek, erakundearen parte hartzeko beren taldeen ekintza komunitarioaren protagonistak izanda.

c) Gizarte-langileek eta hezitzaile profesional edo boluntarioek, babes-ekintza komunitarioa aldeztuz eta zentro eta zerbitzu publikoekiko lan komunitarioan bitartekari arituz.

3. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek haur eta nerabeak babestu egiten dituzte beren lurralde komunitarioan, prebentziorako eta babeserako egiten dituzten plan eta proiektuen bitartez.

4. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek zilegi dute sare komunitarioak eratzea auzo, herri edo ibarreko haur eta nerabeekin diharduten zerbitzu edo zentro publikoekin edo komunitateko beste entitate batzuekin, prebentzio eta babeserako elkarlaneko plan eta proiektuak garatzeko.

5. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioek zilegi dute komunitatearteko sareak eratzea beste auzo, herri eta ibar batzuetako antzeko beste erakunde batzuekin, elkarlaneko prebentzio- eta babes-plan eta -proiektuak garatzeko.

6. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, eta ez dute inolako antola-loturarik edukiko erakunde politiko eta erlijiosoekin, hain zuzen ere beren izaera komunitarioa bermatzearren: plurala, kulturartekoa eta irekitasunezkoa.

7. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioak behartuta daude:

a) Legalki eratuta egotera eta erregistratuta egotera, elkartze-eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren ildoan, edo Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legearenean.

b) Beren estatutuetan edo fundatze-arauetan helburu gisa jasota edukitzera haur eta nerabeen eskubideen sustapena eta babesa.

c) Antolamendu eta profesional- edo boluntario-lantalde tekniko egokiak edukitzera adingabeen arretarako diharduten proiektu komunitarioetan esleituta dituzten eginkizunak betetzeko.

d) Jarduten duten auzo, herri edo ibarreko sare sozial eta komunitarioen idatzizko aitorten publikoa edukitzera.

e) Bai esparru komunitarioan bai Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen programa desberdinetan haur eta nerabeak artatzen dituzten zerbitzu eta zentro publikoekin sarean lan egitera.

f) Erakunde horietan diharduten boluntarioen eta langileen prestakuntza eta kualifikazioa bermatzera.

X. artikulua. Jarraipena, erregistratzea, publizitatea eta zerbitzu-baimentzea.

1. Erakunde horiek beren jarduna moldatuko dute Foru Komunitateko Administrazioeko organo eskudunaren jarraibideetara, ikuskapenera eta kontrolera, eta gaiari aplikatzekoa zaion araudian aipatzen diren mugapenen barneko zaintza-eta bitartekaritza-eginkizunak besterik ez dute hartu ahal, betiere ziurtaturik eginkizun horiek eskusiboki adingabeen interesen mesedetan betetzen direla.

2. Erakunde laguntzaileak ofizios inskribatuko dira Gizarte Zerbitzuen Erregistroan, "erakunde komunitario" nolakotasunaren aipamen esplizitua eginez.

3. Erakunde komunitario bati zerbitzuak adjudikatzeko ebazpen administratiboetan espresuki adierazi beharko da adingabeei arreta emateko zer zeregin edo jardueratarako dagoen akreditatua. Ebazpen horiek Kontratazio Atarian argitaratu beharko dira.

4. Adingabeei arreta emateko zerbitzuak Administrazioak esleituak direnean, horiek irekitzeko eta jarduteko, beharrezkoa izanen da aurretiazko baimen administratiboa lortzea; eta, Administrazioak esleituak ez direnean, aldeztatik jakinarazi beharko dira. Hori guztia, indarreko araudian ezarritako baldintzak eta prozedura beterik.

X. artikulua. Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen eskubideak eta betebeharrak.

1. Foru Komunitateko administrazio eskudunetako organo administratiboek beren lankidetzak eta laguntza helaraziko diete erakunde komunitario akreditatuei, bai proiektu-garapenean, bai haur eta nerabeak komunitate-esparruan babesteko agente gisa urratsak egiten hasteko.

2. Adingabeak artatzeko akreditazioa duteneko eginkizunak betetzean, entitate laguntzaileek betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Ordenamendu juridikoak adingabeei aitortzen dizkien eskubideak errespetatzea eta beteaztea eta, horretarako, adingabeari, gurasoei eta harreragile edo adoptatzaile diren familiei entzutearen izapidea mantentzea, esku-hartzea egokia izateko moduko elkarlana eginez.

b) Barne funtzionamendurako arauak izatea, gutxienez ere jasoko dutenak adingabeen eskubi-deen mugapenarekin, aurreikusitako zigorrekin eta tratamendu pertsonalen motekin eta maiztasunarekin zerikusia daukana.

c) Foru Komunitateko administrazioek eginiko ikuskapen- eta kontrol-ekintzak erraztea.

d) Dauden erregistro administratiboetan inskribaturik egotea.

e) Erregelamenduetan edo akreditazio-ebazpenetan espresuki ezartzen den beste edozein.

X. artikulua. Entitate laguntzailearen akreditazioa kentzea.

Erakunde laguntzaile gisa aritzeko akreditazioa organo eskudunak aldeko espedientean emandako ebazpen arrazoitu baten bidez errebokatzeko ahalik da, erakunde horiek ez badituzte gehiago betetzen 41. eta 43. artikuluan edo kasuko itun sozial edo kontratu publikoan ezartzen diren bete-kizun edo baldintzak”.

Zioak: Komunitateak eta erakunde komunitarioek prebentzioari dagokionez bete dezaketen zeregin galanta dela-eta, beharrezkoa da lege honetan ahalik eta doitasun handienaz islatuta geratzea erakunde horien funtzionamendua.

37. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikuluko 1, 2 eta 3. apartatuak aldatzeko zuzenketa.

40. artikularen 1, 2 eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute aurrerantzean:

“1. Gizarte-zerbitzuen eta adingabeen babesaren arloko eskumena duen departamentuak gainerrako gaitako eskumena duten departamentuekin sarea osatuz lan egiten du buru gisa, haur eta nerabeengan eragina duen edozein gai jorrazteko; eta, bidezkoa denean, toki erakundeekin ere bai, haien ordezkariari proposamena egin ondoren edo ordezkari horien ekimenez.

Horretarako, tresna batzuk prestatu, berrikusi edo eguneratzea sustatuko du, horien bidez bermatze aldera modu homogeneoan garatzen direla beharrezkoak diren esku-hartzeak eta ukitutako departamentuetako langileen prestakuntza, bai eta beste administrazio batzuekiko elkarlana ere, ekintza-gidak partekatzea. Hori guztia, pertsonengan eta haien beharretan zentratutako eredu baten arabera, zeinak funtsezko zeresana esleitzen baitie kasu bakoitza kudeatzen duen taldeari eta ikaskomunitateak eratzeari.

2. Gizarte-zerbitzuen eta adingabeen alorreko eskumena duen departamentuak koordinazio-lana eta elkarlana egiten ditu departamentu eskudun desberdinekin eta oinarritzko gizarte-zerbitzuetako langileekin, haur eta nerabeen alorrean eginkizun diren urratsetarako, beharrezkotzat jotzen diren batzordeen edo mahaien bitartez, eta, betiere:

a) Arlo hauetan: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, enplegua, aisialdia eta kirola.

b) Adingabeekin zerikusia duten suizidio-portaeren prebentzioan eta artatzean.

c) Gizarte-zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren alorreko eskumenak dituzten departamentuek haurren ongizatea, arreta komunitarioa eta sareko lana sustatzeko batzorde bat eratuko dute, zeinak, besteak beste, sarean lan egiteko oinarritzko eredu adostu bat ezarriko baitu, ahalbidetuko duena informazio-lanabesak partekatzea, lan-metodologiak bateratzea eta haur eta nerabeen

arloan aritzen diren profesionalen multzoa koordinatzea.

3. Eskubide sozialen eta adingabeen arloko eskumena duen departamentuak adingabeen arloko bere politikak eta ekintzak planifikatu eta garatu ditu bere berdintasun unitatearen bitartez elkarlana eginez gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren arloko eskumena duen erakundeekin, genero-ikuspegia bermatzearen”.

Zioak: Adingabeentzako politiken koordinazioan eta exekuzioan Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren lidergoa indartu nahi da.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da adingabeentzat funtsezkoak diren beste alderdi batzuk, aisialdia eta kirola kasu, batzordeetan eta mahaietan barne hartzea, eta haur eta nerabeen suizidioaren prebentzioari berriazko mahai bat eskaintzea.

38. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

40. artikuluarik –Batzordeak– apartatu berri bat, 5. bis, gehitzeko zuzenketa. Testua honela geldituko litzateke:

“5. bis. Babes-mahaiak eratuko dira arlo komunitarioan, gurasoen elkarlanean ordezkariekin, adingabeak komunitatean babesteko espezializazioa daukaten administrazio publikoetako langileekin, haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioekin eta udal eta kontzejuen ordezkariekin, esku hartze aldera foru lege honek prebentzioaren eta babes komunitarioaren sustapenari dagokionez aurreikusitako ekintzak direla-eta”.

Zioak: Esparru komunitarioaren barrenean lagundu eta koordinatu beharri buruzko aipamena jasotzea.

39. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

43. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenketa.

43. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“b) Adingabeen eta haien familien babes eta arretarekin eta haur eta nerabeentzako prebentzio-zerbitzuekin zerikusia duten planak”.

Zioak: Asmoa da plan operatiboan aipua kentzea, haiek plangintza hutsalduta egiten baitute, ez

daukatenez ez estrategiarik ez eta diagnostikorik ere. Halaber, txostengintza-zeregina zabaldu egin nahi da, haur edo nerabeentzako prebentzio-zerbitzuak barne hartzen dituzten planetan, bai eta familiak babesteko eta artatzeko planetara ere.

40. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikuluko 1. apartatuko d) letra aldatzeko zuzenketa.

45. artikuluko 1. apartatuko b) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“d) Gutxienez ere sei ordezkarik, erakunde bakoitzetik bat, adingabeen babesaren eta arretaren arloan diharduten erakunde edo elkarte nagusietakoak eta harrera-familien, adopzio-familien eta familia ugarien elkarlanean. Kontseiluan familia-mota guztiak ordezkatuta egon daitezen bermatuko da”.

Zioak: Kontseiluan lehenetsi beharrekoa da adingabeen babeserako eta familia-mota ezberdinen elkarlanean presentzia.

41. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikuluko 1. apartatuko h) letra aldatzeko zuzenketa.

45. artikuluko 1. apartatuko h) letra aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“h) Askatasun sindikalari buruzko Lege Organikoaren arabera ordezkaritzarik handienekoak diren sindikatuetatik ordezkarik bana”.

Zioak: Legedi organikoari jarraituz, ordezkaritza sindikalik handiena errespetatzearen.

42. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

45. artikuluko –Kontseiluaren osaera– 1. apartatuko letra berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela gertatuko litzateke idatzita:

“j) Haur eta nerabeen alorreko erakunde komunitarioen bi ordezkarik”.

Zioak: Haurren alorreko erakunde komunitarioek bete ahal dituzten prebentzio-zereginak kon-tuan harturik, komenigarria iruditzen zaigu Kon-seiluko batzordearen kide izan daitezela.

43. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. artikuluko –Lehentasunezko izaera eta hel-buruak– 2. apartatuko b) letra aldatzeko zuzenke-ta. Honela geldituko litzateke idatzita:

“b) Integrazio soziofamiliarra eta aisialdiaren jolas- eta sozializazio-erabilera mesedetzen eta bermatzen dituzten jarduera publikoak egin eta sustatzea, era horretan autonomia indartze aldera, esparru komunitarioan batez ere”.

Zioak: komenigarria da jarduera horiek esparru publikotik abiaraztearen konpromisoa hartzea.

44. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. artikuluko –Lehentasunezko izaera eta hel-buruak– 2. apartatuko f) letra aldatzeko zuzenke-ta. Honela geldituko litzateke idatzita:

“f) Sarean lan egitea edozein eskubide-urrake-taren antzemate goiztiarrerako, barne harturik administrazio publikoen egintzetatik eratorritako-ak”.

Zioak: Xedea da tratu txar instituzionalaren aurka ere jardutea, haur eta nerabeen eskubideen beste urraketa-modu bat den aldetik.

45. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

58. artikuluko –Lehentasunezko izaera eta hel-buruak– 2. puntuari letra berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke idatzita:

“h) Haur eta nerabeei arian-arian eta beren garapenaren esparru ezberdinetan prestakuntza ematea beren buruaren babesa beren gain har dezaten, dituzten heldutasun-mailaren eta gaitasun-erabera. Prebentzio-prestakuntza hori haien autonomia errespetatuz eginen da, eta horretan laguntzaile izanik haien familiak, irakasle-ak, erreferente komunitario profesional nahiz boluntarioak, gizarte- eta osasungintza-zerbi-

tzetako profesionalak, eta haien inguruneetan parte hartzen duen beste edozein pertsona heldu”.

Zioak: garrantzitsua da lege honetan jasota uztea haur eta nerabe bakoitzaren autonomiareki-go begirunea, eta garrantzitsua, halaber, horren garapena jorratzea.

46. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, 59. artikuluko (Prebentzio-jarduketak) 1. puntuko d) letra aldatzekoa (Adin-gabeen eskubideei buruzko sentsibilizazioaren arloan). Testua honela geldituko litzateke:

“d) Haurren eskaletza desagerrarazteko prebentzioa eta kontrola, horrelako jardunak posi-ble egiten dituzten zergatiak aintzat hartuta”.

Zioak: Erraz askoa da haurren eskaletza ero-sotasunezko egoera batetik kriminalizatzea. Egoe-ra horiek ekidin beharra dago, baina ez zigor hu-tsaren ildotik, baizik eta aztertuz zer arrazoi sozioekonomiko edo pertsonalengatik pertsona batzuek haurrak baliatzen dituzten, kaleetan limosna eskatzeko.

47. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzen-keta.

59. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. Hezkuntzaren eremuan.

a) 0-3 urte bitarteko haur hezkuntzaren susta-pena, arian-arian bermaturik Nafarroa osoan doa-koa izan dadila eta bereziki sustaturik haietarako irispidea izan dezaten desgaitasunen bat duten edo ikuspegi soziokultural edo ekonomikotik behartsuak diren familietakoak diren adingabe guztiek.

b) Gutxieneko hezkuntza-jarraibide batzuk ezartzea adingabeak artatzeko ez-hezkuntzako beste zerbitzu batzuetarako, zeinetan irakaskun-tza ez baita derrigorrezkoa eta adingabeek luzaro-an egon behar baitute, edo zerbitzu horiek ohiko-tasun-izaera dutenean.

c) Nahitaezko eskolatzearen bermea eta esko-lako absentismoa gutxitzeko ekintzak. Ildo horre-tan, Errenta Bermatua jasotzeko, beti izanen da

baldintza, adingaberik baldin badago, haien nahitaezko eskolatzea gauzatzea.

d) Eskola-porrotaren prebentzioa. Horretarako, besteak beste hartuko dituen neurrien artean, hezkuntza-alorreko departamentu eskudunak integrazio- eta laguntza-ikasgelak sortuko ditu, toki erakundeekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskola-premiei erantzutekoak, porrot horretarako faktore izan daitezkeenak eskola-ordutegitik kanpo konpentsatzea xede.

e) Eskola-sistema arruntaren errefus-, porrot-edo absentismo-egoeran dauden adingabeentzako programak garatzea, neurri egokiak ezarriz, ekidinen dutenak haur bakar batek ere hezkuntza-sistema uztea adin nagusitasunera iritsi baino lehen edo gizarteratze eta laneratze egokirako aukera ematen duten gaitasunak bereganatu gabe. Adin txikietatik azpimarra berezia jarri behar da gaikuntza eta inklusio digitalean.

f) Gizarte inklusiorako programak garatzea zailtasun bereziak dituzten adingabeentzat, goiz agertzen den zoritxarra barne, baita bestelakoak ere, eskola inklusiboari dagozkionak, aniztasunarekin lotuak (sexu edo kultur arloan, eta gaitasunetan).

g) Ingurune behartsuetan sortuak diren adingabeentzako konpentsazio-neurri zehatzak ezartzea.

h) Hezkuntza-programa transbertsalak abiaraztea, helburu dutenak prebentzioa eta detekzio goiztiarra egitea, genero-indarkeriari dagokionez berdintasuna sustatuz, eta jarrera xenofoboiei dagokienez pertsona guztiak errespetatu eta integratzearen alde jokatzuz.

i) Haur eta nerabeen aurkako eskola-jazarpena kontrolperatu eta desagerrarazteko programak egitea ikastetxeetan, langile kualifikatuen bitartekoak.

j) Programa desberdinetan kontuan hartzea landa eremuko behar bereziak.

k) Adingabeen aurkako bortizkeriaren eta sexu-abusuen prebentzioa. Ildo horretan, Nafarroako Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko du, eta bermatuko du, haur eta nerabeen aurkako indarkerien prebentzioari, detekzioari eta erreparazioari buruzko politiken ebaluazio etengabea egiteko sistema bat”.

Zioak: Beharrezkoa da prebentzio-neurrietakoren bat zehaztea, hala nola 0-2 etapa-ko eskolatzeari buruzkoa, edo eskola-porrotaren

prebentziorako garatu beharreko programak, edo nahitaezko eskolatzearen bermea, bai eta proiektuan jasotako neurriren baten testua hobetzea ere. Halaber, beharrezkotzat jotzen da ebaluazio-kulturaren aldeko apustua egitea, lehenetsirik adingabeen aurkako indarkerien prebentzioa; horretarako, ezinbestekoa da prebentzio-politiken eraginkortasunaren ebaluazio etengabeako sistema bat arautu eta bermatzea.

48. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, 59. artikuluko (prebentzio-jarduketak) 2. puntuko h) letra aldatzekoa (Hezkuntzaren eremuan). Honakoa luke testua:

“h) Haur eta nerabe etorkinentzako eta babespean dauden adingabeentzako neurri espezifikokoak biltzen dituzten hezkuntza-programak garatzea. Programa horiek garatuko dira elkar harturik hezkuntzako profesionalekin, gizarte-hezitzaileekin eta populazio zehatz honek beharrezko duen arretan espezializatuta dagoen langile orrekin, barne harturik hizkuntza jakitearekin zerikusia duena, gaztelania nahiz euskara dela”.

Zioak: Kontuan harturik ezen Nafarroako Foru Komunitatean bi hizkuntza daudela, ez zaigu zilegi haietako bat baztertzea, ez eta ezain haur edo neraberi hizkuntz eskubideak murriztea ere. Horregatik, beharrezkoa da euskara ere jasota geratzea.

49. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluko 3. apartatua aldatzeko zuzenketa.

59. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. Osasungintzaren eremuan:

a) Jaioberrien baheketa areagoturako eskubi-dea Nafarroarako arautzen duen ekainaren 18ko 10/2021 Foru Legeak xedatzen duena ezartzen dela bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak martxan jartzea.

b) Haur osasuntsuaren kontrol eta jarraipenerako legeetan eta haurren txerto-egutegian ezarritako epeak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak martxan jartzea.

c) Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean ezarritako epeak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak martxan jartzea.

d) Osasunerako hezkuntzako programak eta adingabearen eboluzio-aldi bakoitzerako egokia den hezkuntza afektibo-sexualeko programak bermatzea.

e) Prebentzio-prestazioak bermatzea, ekiditekoak bai adingabeengan bai haien gurasoengan osasun mentaleko problemak agertzea, obesitatea, alkohol, tabako eta beste droga batzuen kontsumoa eta beste adikzio batzuk, jokorako adikzioa eta pantailetarako adikzioa barne. Horetarako, osasun-arloaren eskumena duen departamentuak osasun-zerbitzuen zorroan sartuko ditu prestazio horiek, eskubide gisa bermaturik.

f) Istripuak eta, batez ere, etxeko istripuak prebenitzeko ekintzak egitea.

g) Guraso izanen direnen prestakuntzarako ekintzak egitea, haurdunaldiaren hasieratik. Osasun etxeetako langileekin egiten den prestakuntzan sartuko dira atxikimendu seguruaren kontzeptua eta aitatasun eta amatasunaren arlo psikologikoko trebetasunak garatzea, zaurgarritasun- edo arrisku-egoerak detektaturik.

h) Prebentzio-ekintzak egitea 16 urte baino gehiagoko adingabeen lanari dagokionez.

i) Sexu-indarkeriako egoeren detekzio goiztiarrerako osasungintza-programak egitea, bai eta sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeekin esku hartzeko programa terapeutikoak egitea ere; sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren haur eta nerabeen alorreko detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako programa; garaia baino lehenagoko ezkontzak, hitzartuak edo behartuak, detektatzeko eta ekiditeko jardute-protokoloak; eta emakumeen mutilazio genitala jasateko arriskuan dauden neskatoak detektatzeko programak”.

Zioak: Asmoa da prebentzio-zereginak hedatzea eta zehaztea, adingabearen eskubideen erabateko garapenerako funtsezko elementu direlako.

50. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zuzenketa, 59. artikuluko (prebentzio-jarduketak) 4. puntuko a) letra aldatzekoa (familientzako sostengua). Honakoa luke testua:

“a) Adingabe bakoitzarentzat egoki diren zainketak bermatzea helburu nagusi duen guraso-erantzukizun positiborako hezkuntza sustatuko da eta, bereziki, harako hezkuntza zeina zuzenduta baitago familia gurasobakarrei, gizarte-sarerik gabeko edo oinarritzko heldulekurik gabekoak izan eta desgaitasuna edo gaixotasun mentalen bat duten seme-alabak dauzkaten familiei, eta familia migratzaileei”.

Zioak: laguntza ez da jatorriaren arabera izan behar, baizik eta premiaren arabera.

51. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluko 4. apartatuan g) letra gehitzeko zuzenketa.

59. artikuluko 4. apartatuari g) letra gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

“g) Familiei eskueran ipintzea laneko, pertsonaren eta familiako bizitza bateragarri egiteko mesedegarri diren laguntzak eta zerbitzuak”.

Zioak: Laneko eta pertsonaren bizitza seme-alaba adingabeak zaintzarekin bateragarri egiteko modua egotea beharrezkoa da, babesgabetasun-egoerak prebenitzeko.

52. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluko 7. apartatuko bigarren eta hirugarren paragrafoak aldatzeko zuzenketa.

59. artikuluko 7. apartatuko bigarren eta hirugarren paragrafoak aldatzen dira. Hona testu berria:

“Nafarroako Gobernuak Arreta Goiztiarreko Zerbitzua bermatu beharko du jaiotzatik 6 urteko adinera arte, bai eta arreta hori artikuluko honek xedatzen duenari jarraikiz ematen dela bermatu ere, zein ere den arreta hori emateko jarduera koordinatu eta antzolatzearen erantzukizuna duen departamentua. Erregelamenduz ezarriko dira zeresana duten departamentu desberdinen esku-menak.

Adingabeen familiei eta haien ingurune komunitarioetako eragileei akonpainamendu egokia bermatuko zaie, haien gaitasunari lagunduko zaio eta familien eta adingabeen parte-hartzea bermatuko da”.

Zioak: Artikulu honen guztiaren testuak esan gabe uzten du garrantzitsuena: 6 urteko adinera bitarteko hurrei eta haien familia eta inguruneei arreta goiztiar integrala bermatu behar zaiela.

Departamentuen arteko banaketa bigarren mailako kontua da, erregelamendu bidez zehaztu beharrekoa.

53. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. artikuluari 8. puntu berri bat gehitzea. Prebentzio-jarduketak.

“8. Esparru komunitarioan, topagune gisa:

a) Komunitatearen baitan gertatzen diren arrisku- eta babesgabetasun-egoeren antzemate goiztiarra.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuekiko lankidetzaz, arrisku- eta babesgabetasun-egoeren jarraipena egiteko.

c) Banakako eta taldekako gizarte- eta hezkuntza-akopainamendua, babes-harremanetatik, kaleetan eta arrisku-egoerako haur eta nerabeen zentro komunitarioetan.

d) Haur eta nerabeen partaidetzarako taldeei laguntzea.

e) Askotarikoen berdintasunezko elkarbizitza eraikitzea eta gatazka-ebazpena erraztea.

f) Komunitatera iristen diren haur eta nerabeak harreran hartzea.

g) Esparru komunitario seguruak eratu eta garatzea, ekipamendua daukatenak eta haur eta nerabeen ongizate psikosoziala sustatzen dutenak, horrekin batera helduei modua emanik adingabeak babesteko zereginean laguntzeko.

h) Belaunaldiarteko zainketa komunitarioak sustatzea bai krisialdietan bai komunitateko eguneroko bizitzan.

i) Hezitzaile komunitarioak prestatzea.

j) Errealitatearen analisi iraunkorra egitea diagnostiko komunitarioen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuekiko koordinazioan.

k) Haurrak eta nerabeak protagonista gisa txertatzea komunitatearen prozesu sozial eta kulturaletan.

l) Adingabeen eta gizarte- nahiz hezkuntza-erreferente diren helduen artean pertsonarteko harremanak lantzea.

m) Nafarroako eta munduko beste komunitate batzuetakoak diren beste haur eta nerabeekiko solidaritatea eta harremana suspertzea.

n) Sostengua ematea Nafarroako foru Administrazioaren tutoretzapekoak diren komunitateko haur eta nerabeei, beren helduleku komunitarioei eutsi ahal izan diezaieten familia- edo egoitzaharrerako egoeran dauden bitartean.

o) Auzoko, herriko edo ibarreko pertsonen eta familien arteko familia-harrera sustatzea”.

Zioak: esparru komunitarioko prebentzio-jarduketek zertan behar duten oinarrituta egon zehaztearen garrantzia.

54. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

59. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Honela geratuko litzateke idatzita:

“59. bis artikulua. Prebentzio-jarduketak.

Prebentzio-plan orokorrean zehaztuko dira 59. artikulua jasotzen dituen orotariko prebentzio-jarduketak egiteko neurriak”.

Zioak: Prebentzio-zeregina jorratzeko urrats zehatzak non eta nola planifikatuko diren zehaztu beharra.

55. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

60. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa. Honela geratuko litzateke idatzita:

“60. bis artikulua. Prebentzio komunitarioa.

1. Prebentzio komunitarioa da toki-komunitate baten esparruan egiten diren arlo desberdinetako prebentzio-jarduketan multzoa, 60. bis artikulua definitzen duenaren arabera.

2. Prebentzio komunitarioa erantzukizun partekatua da, Nafarroako foru Komunitateko Administrazioaren, toki administrazioen eta haur eta nerabe alorreko sare komunitarioen artekoa.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erkidegoaren lurraldean dituen zerbitzu eta zentroek bai eta toki administrazioek ere lurralde

horretako haur- eta nerabe-alorreko sare komunitarioekin elkar harturik lan eginen dute plan eta proiektu komunitarioetan.

4. Toki administrazioek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sostenguarekin, beren lurraldean sustatuko dute haur- eta nerabe-alorreko erakunde komunitarioen abiarazpen eta garapena, baliabide ekonomikoak, lokalak eta lan-tokiak horretara bideratuz”.

Zioak: Garrantzitsua da lege honetan jasotzea prebentzio komunitarioaren jardun-eremua eta egikera.

56. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

60. ter artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke idatzita:

“60. ter artikulua. Haur eta Nerabeen Babeserako Prebentzio Planak

1. Nafarroako Gobernuak, diagnostikoa egin ondoren, haur eta nerabeen babeserako prebentzio plan estrategiko orokorra eginen du. Plan horrek lau urteko indarraldia izanen du, eta balio izanen du foru lege honetan haur eta nerabeentzat jasotzen diren eskubideak hobetu eta bermatze aldera egin beharreko ekintzak zehazteko eta ekintza horiek ebaluatzeko. Plan hori koordinazioan eginen da departamentu desberdinekin, toki entitateekin eta haur- eta nerabe-alorreko erakundeekin, eta tokiko prebentzio-planak prestatzeko gida antzera erabiliko da.

2. Tokiko prebentzio-planak, zeinak haur eta nerabeak babestearren zentro edo leku bakoitzeko errealitateari egoikituko baitzaizkio. Foru administrazioaren tutoretzapeko haur eta nerabe babesgabeak artatzen dituzten programak ere bai.

3. Haur eta nerabeak babestekoak diren tokiko prebentzio-planen helburu orokorra izanen da zentro eta zerbitzuetan artaturiko haur eta nerabeen eskubideak bermatzea, babesgabe daudenean eta gizartearen baitan bizitza beregaina egiteko garapenerako laguntza hartzen dutenenak, betiere haien bilakaera-mailari, gaitasunei eta beharrian bereziei erreparaturik.

4. Haur eta nerabeak babesteko tokiko prebentzio-planak ikuspegi integral eta komunitariotik oinarritzko hiru prebentzio-mailetara bideratuko dira:

- Artatzen duten populazioaren osotasunarengana: lehen mailako prebentzioa.

- Problematika edo premia bereziak dituzten haur- eta nerabe-sektore desberdinengana: bigarren mailako prebentzioa.

- Zentro, auzo, herri edo ibarrera itzultzen diren haur edo nerabeengana, itzuleraren arrazoia denean haiek pairatu dituztela errehabilitazio, ospitaleratze, instituzionalizazio, migrazio edo beste edonolako prozesuak, adingabea denbora batez urundu dutenak, halako moldez non premia baitauka lehen partaide zeneko ingurunean berrintegratzea: hirugarren mailako prebentzioa.

4. Haur eta nerabeen babesaren alorrean, bai plan estrategiko orokorrak bai tokiko prebentzio-planek ekintzak bideratuko dituzte honako esparru hauetan:

- Gizarte eta hezkuntzarena: parte-hartzea eta prestakuntza.

- Sozioekonomikoa: zerbitzuak eta prestazioak.

- Soziosanitarioa: osasunaren sustapena eta arriskuaren kudeaketa

- Informatiboa: informazioa eskuratu eta kudeatzea.

5. Haur eta nerabeen babeserako prebentzio-planak zortzi urteko eperako eginen dira, eta haien tankeratzean parte hartuko dute bai zentro edo zerbitzuko langile helduek bai haur eta nerabeek, eta plan estrategiko orokorrarekin koordinaturik jokatuko da.

6. Nafarroako auzo, herri edo ibarretako sare komunitarioei baliabide publikoak helaraziko zaizkie haur eta nerabeen babeserako prebentzio-plan komunitarioak prestatzeko, sistematizatu eginen dutenak elkarte, pertsona eta familiek beren bizitza komunitariotik haurren babesean duten parte-hartzea.

7. Haur eta nerabeen babesa xede harturik zentro eta zerbitzuek dituzten prebentzio-planak urtero ebaluatuko izanen dira, ebaluatzaile izanik, behin betikoz, haur eta nerabeen babesaren alorrean Nafarroako Foru Komunitatearen arduradun direnak. Haur eta nerabeen babeserako prebentzio-planen ebaluazioak jardunbide egokiak identifikatuko ditu, eta horiek partekatuko izanen dira zentro, zerbitzu publiko eta sare komunitarioen artean”.

Zioak: Legean jasotzea prebentzio-planak edukitzearen premia, eta zehaztea nola eginen den prebentzioa behin legea onetsia izanik.

57. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61. artikuluari 1. bis apartatu berria gehitzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“1. bis. Arrisku-egoerako esku-hartzea administrazio publiko eskudunari dagokio, ikaste-txeekin eta gizarte- nahiz osasungintza-zerbitzuekin koordinazioan, bai eta, kasua bada, dagokion lurralde-esparruko entitate laguntzaileekin edo beste edozeinekin koordinatuta.

Toki-entitateek jakiten dutenean adingabe bat arrisku-egoera batean egon daitekeela, hori egiaztatu eta ebaluatzeko egokiak diren urratsak eginen dituzte.

Arrisku-egoera baloratzeak barne hartuko du familiari buruzko gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartze proiektu bat abiaraztea, non jasota egon beharko diren helburuak, ekintzak, baliabideak eta epe-aurreikuspena, betiere sustaturik adingabearen babeserako faktoreak eta adingabea bere famili ingurunean mantendurik. Ahalegina eginen da gurasoek, tutoreek, zaintzaileek edo hareragileek proiektuaren prestaketan parte har dezaten. edozein kasutan ere, horien iritzia entzun eta aintzat hartuko da proiektua adosteko ahaleginean. Proiektua alderdiek sinatua izan beharko da, eta, horretarako, modu ulergarrian eta formatu eskuragarrian komunikatuko zaie. Adingabeak ere komunikatu eta eginen zaio kontsulta, baldin behar adinako heldutasuna badu eta, betiere, hamabi urteko adinetik aurrera.

Guraso, tutore, zaintzaile edo harreragileek, nork bere eginkizunen esparruan eta bere gaitasunaren heinean, irmo lagunduko dute familiarentzako gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartzearen proiektuan adierazitako neurriak betetzeko zereginean. Bertan aurreikusitako laguntza emateari uko egiteak adingabearen arrisku-egoera deklaratu izatea ekarriko du. Deklarazio hori administrazio-ebazpen arrazoitu bat izanen da, aipatu egoera onbideratzeko neurriak ere adieraziko dituena.

Familiarentzako esku-hartze proiektuaren balorazio- edo exekuzio-prozesu osoan zehar edo arrisku-egoera deklaratu izan ondoren beharrezkoa eta urgentea irizten zaionean haur edo nerabea bere familiarengandik aldentzea izateari, haren ongizatea babesteko, orduan toki entitateak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa premiatuko du, objektiboki eta funtsatuki, idatziz eta ahalik eta lasterren, bidera dezan adingabearen babeserako beharrezkoa den jarduna”,

Zioak: Familiarentzako gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartze proiektuak egitearen eta izan beharreko jokamoldea zehaztearen premia adierazteak daukan garrantzia.

58. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61. artikuluko 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2. Arrisku egoerak dira hezkuntzaren, norberaren, familiaren edo ingurune sozialaren inguruabarren, gabezien edo gatazken ondorioz, kalte egiten diotenak adingabearen garapen pertsonalari edo hezkuntza, familia edo gizarte garapenari, edo haren ongizateari edo eskubideei, adingabeen gurasoek edo legezko ordezkariak egoera horiek arintzeko beren erantzukizunak osorik beren gain hartzen ez dituztenean edo ezin hartu dituztenean, egoera horietarako babesgabetasun deklaraziorik egiteko beharrik ez badago eta legeak aginduta tutoretza hartu beharrik ere ez, egoeraren garrantzia, intentsitatea edo maiztasunagatik, eta bai ordea administrazio publiko eskudunek esku hartzea, zailtasunak edo egokitzeko ezintasuna baztertu, gutxitu edo konpentsatzeko eta babesgabetasuna eta bazterketa soziala saihesteko, adingabeak haien familia inguruntik bereizi gabe. Ondorio horietarako, arrisku adierazlea izanen da, besteak beste, egoera horretan deklaratu anai-arrebarik izatea, non ez diren modu agerikoan aldatu familiaren inguruabarrak. Inguruabar edo gabezia materialak egotea arrisku adierazletzat joko da, baina ez du inoiz ekartzen ahalko familia-ingurunearengandik bereizia izaterik, ez eta familiaren oniritzirik gabeko beste inolako esku-hartzerik ere”.

Zioak: Arrisku-egoera deklaratu izan zion anaia edo arreba bat eduki izana ez litzateke arrisku adierazle izan beharko.

Halaber, gabezia material edo ekonomikoak jada ez dira babesgabetasun-deklaraziorako arrazoi gisa jotzen estatu-legerian. Testuak zehazten duenez, emaitza ezin izanen da familia-ingurunearengandiko bereiztea, baina iruditzen zaigu hori ezin dela posible izan familiaren adostasunik ez duen inolako esku-hartzetan, maiz asko ikusten baita nola gizarte-zerbitzuek familia txirotuen kontrol soziala egiten jarduten duten.

59. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61. artikuluari (babes-sistema) beste apartatu bat, 3. bis, gehitzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“3. bis. Arrisku-egoera administrazio publiko eskudunak deklaratu du estatu-legeriak xedatzen duenari jarraituz, administrazio-ebazpen arrazoitu baten bitartez.

Arrisku-deklarazioak zehaztuko ditu deklarazio horren arrazoiak, eta jaulkiko da aurretiaz amari, aitari, tutoreei, zaintzaileei edo harreragileei entzutea emanda, bai eta adingabeari ere, 1/1996 Lege Organikoak xedatzen duenari jarraituz. Hala ere gehituko dira familiarentzako gizarte- eta hezkuntza-alorreko esk-hartzearen proiektua, bete beharreko helburuak eta horretarako epea, eta esanbidez ohartaraziko da ezen hori ez betetzeak ekarriko duela espediente Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari igortzea, espediente balora dezan eta, kasua bada, adingabearen babesgabetasun-egoera deklaratu dadin.

Arriskua deklaratu duen ebazpena ahalik eta epe laburrenean jakinaraziko zaie interesdunei, horretarako lehenetsirik modu presentziala. Adingabe baten arrisku-egoera deklaratu duen ebazpenaren aurka zilegi izanen dira legeria prozesal zibilak aurreikusitako errekurtsoak.

Arrisku-deklarazioan ezarritako epea igarota, arrisku-deklarazioa egiteko eskudun den organoak zilegi izanen du deklarazioaren luzapena agintzea edo, jadanik ez badira betetzen adingabea egoera horretan dagoela jotzeko baldintzak, deklarazioa errebotatzea. Toki-entitateak arrisku-egoera amaitu dela dioten ebazpen arrazoitua jaulkiko du. Kasu horretan, jarraipen- edo akonpainamendu-jarraibideak ematen ahalko dira, etorkizunera begira arriskuak prebenitzeko eta/edo helburuak indartzeko.

Arrisku-deklarazioan eta horren luzapenetan aurreikusitako epea amaiturik eta errekurtso guztiak agorturik, bai eta, betiere, arrisku-deklaraziotik urtebete igaro denean lortu gabe aldaketarik egin dadila zaintza-betebeharren betetzean, bermatuko dutenak adingabeak laguntza moral edo material egokia edukitzea, toki entitateak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunari proposatuko dio babesgabetasun-egoeraren deklarazioa balora dezan. Horretarako, igorriko dizkio proposamen arrazoitu bat, adingabearen espedientearen kopia bat eta aplikatu den familiarentzako esku-hartzearen plana.

Foru Komunitateko Administrazioeko entitate publikoaren ustez ez denean bidezkoa babesgabetasun-egoera deklaratu, arrisku-egoera baloratzeko eskumena duen administrazio publikoak horretarako proposamena aurkeztu badu ere, horren berri emanen die arrisku-egoeran esku hartu duen administrazio publikoari eta Fiskaltzari. Azken horrek adingabearen egoeraren ikuskapena egingen du, zilegi duela, horretarako, ikaste-txeen eta gizarte-, osasungintza- edo beste edonolako zerbitzuen laguntza eskatzea”.

Zioak: arrisku-egoerak eta horietan nola jokatu behar den zehaztearen garrantzia.

60. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

61. artikularen (babes sistema) 4. puntua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Jokabide-problema ez dira tipologiatzat jotzen babesgabetasun-egoerei dagokienez.

61. ZUZENKETA

**NAVARRA SUMA, NAFARROAKO ALDERDI
SOZIALISTA ETA GEROA BAI
TALDE PARLAMENTARIOEK,
PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
ETA IZQUIERDA-EZKERRA
TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK**

61. artikuluko 4. apartatua aldatzeko zuzenketa.

Testua honako honen bitartez aldatuko da:

“4. Inguruabar larri eta iragankorreatik babesgabetasun-egoera, gurasoek edo tutoreek arrazoi behar bezala frogatuengatik adingabea zaindu ezin izatearen ondoriozkoa. Entitate publikoari eskatu ahalko diote zaintza beregana dezan beharrezkoa den denboraz, zeina ez baita bi urte baino gehiagokoa izanen adingabea aldi baterako zaintzeko aldi gisa, non eta adingabe horren interes gailenak ez duen komenigarri egingen, salbuespen gisa, neurriak luzatzea. Epea edo, kasua bada, luzapena igarota, adingabeak guraso nahiz tutoreengana itzuli beharko du; bestela, horretarako baldintza aproposik suertatzen ez bada, legezko babesgabetasun-egoera aitortu beharko zaio.

Borondatezko zaintza-eskualdatzea idatziz egingen da, jasota utzirik ezen guraso edo tutoreei jakinarazi egin zaizkiela adingabearekiko izaten

segitzen duten erantzukizunak eta entitate publikoak zaintza hori zein modutan egikaritu duen. Bermatu eginen da, batik bat desgaitasunen bat duten adingabeen kasuan, ordura arte jaso dituzten laguntza espezializatuen etengabetasuna, edo haien premietarako egokiagoak diren beste sostengu batzuk abian jartzea”.

Zioak: Haur eta nerabeen babeserako gure legediaren indarraldian zehar, ahalegina egin da zailtasuna/gatazka soziala dikotomia gainditzearren, azken hori murrizkeria estigma-jartzailea gertatzen delako jokabide-doikuntzara bideratua goa dagoen jardun baten beharrea dauden adingabeei buruzko irizpenari dagokionez. Nahiz eta jokabide-problema dituzten adingabeentzako ekintza berariazko eutsi egiten zaien, ez da uste tipologia bat osa dezaketarik babesgabetasun-egoeren alorrean.

Bestalde, 61. artikuluko 1. puntuan babesgabetasun-egoera desberdinak zerrendatzen dira, eta gero garatzen dira 2. puntuan (arriku-egoerak) eta 3. puntuan (babesgabetasun-egoerak). Baina esplikatuta gabe geratzen da inguruabar larri eta iragankorregatik babesgabetasun-egoera.

62. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

62. bis artikuluko berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke idatzita:

“62. bis artikulua. Babes-neurriak.

1. Foru lege honen IV. tituluan aurreikusitako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek zilegi izanen dute interesdunaren baimenik gabe jasotzea adingabearen egoera baloratzeko beharrezkoak diren datuak eta horien tratamendua egitea, barne direla bai adingabeari buruzko datuak bai haren familia- edo gizarte-ingurunearekin zerikusia dutenak.

2. Profesionalek, entitate publiko eta pribatuek eta, oro har, edozein pertsonak administrazio publikoei emanen dizkiete helburu horretarako beharrezkoak izateagatik eskatzen zaizkien txosten nahiz aurrekariak, adingabeei, haien gurasoei, tutoreei, zaintzaileei edo harreragileei buruzkoak, kasuko pertsonaren baimena lortu behar izan gabe.

3. Entitateek zilegi izanen dute interesdunaren baimenik gabe tratatzea arau horretan ezarritako betebeharrak betetzeko ezinbestekoa den informazioa, helburu bakarra izanik datu horien berri

ematea administrazio publiko eskudunei edo Fiskaltzari.

4. Administrazio publikoek eskuratutako datuak erabili ahalko dira, bakar-bakarrik, foru lege honetan ezarritako babes-neurriak hartzeko, betiere aintzat harturik adingabearen interes gailenaren bermatzeari. Horiek komunikatu ahalko zaizkie, bakar-bakarrik, kasuko ebazpenak eman behar dituzten administrazio publikoei, Fiskaltzari eta organo judizialei.

5. Datuak interesdunaren baimenik gabe halarer laga ahalko zaizkio fiskaltzari. Hark tratatuko ditu foru lege honetan eta aplikatzekoa zaion araudian ezarritako zereginak betetzeko.

6. Betiere, aipatu datuen tratamendua egokitu beharko zaio abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoak, eta hura garatzeko arauak xedatzen dutenari, eta beharrezkoa izanen da araudi horretan aurreikusitako maila altuko segurtasun-neurriak ezartzea”.

Zioak: Garrantzitsua da izaera pertsonaleko datuekin egin behar den tratamendua lege honen bitartez ezarria uztea.

63. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

65. artikuluko h) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Esku-hartze eskuliburu bat ezin da nahitaezkoztat ezarri, ez baita zuzenbideko arau bat.

64. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA,

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS AHAL DUGU NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK

65. artikulua h) letra aldatzeko zuzenketa.

Testua honako honen bitartez aldatuko da:

“h) Babesgabetasun-egoeren balorazioa egiten da eskubide sozialen alorreko departamentuak onetsiko dituen jardun-eskuliburu jarraikiz. Departamentu horrek eskuliburu bat prestatuko eta ezagutaraziko du, babesgabetasun-egoerak

eta haien larritasun-maila baloratzekoa. Eskuliburu horren berri emanen zaie esku hartzen duten sistema eta eragile desberdinei, eta haiek aldiroko prestakuntza jasoko dute eskuliburua behar bezala erabiltzeko”.

Zioak: Garrantzitsua da eskuliburuaren erabilera sustatzea eta, xede horrekin, prestakuntza ematea zerikusia duten pertsona guztiei.

65. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

67. artikuluko (Langile espezializatuak) 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko litzateke:

“2. Lantalde espezializatuak osatzen dituzten langileak, beren lanean ari direnean, agintaritzat joko dira. Langile horiek edozein organo administratiboren laguntza eta lankidetzat eskatzen ahalko dute, eta horrek informazioa eta laguntza aktiboa eman beharko die, foru lege honetan edo berau garatzen duen araudian esleituak dituzten eginkizunak betetzeko beharrezkoa dena, inongo baimenik eskatu beharrik gabe eta ondorengo konfidentzialtasunaren betebeharra galarazi gabe.

Langile espezializatuei akreditaziorako identifikazio bat emanen zaie, beren eginkizunen jardunean hirugarren pertsonari edo entitatei buruzko informazioa eskuratu ahal izateko”.

Zioak: Praktikan, babes-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek jadanik desoreka nabariko erlazioa daukate zaugarritasuneko edo gizarte-bazterketako egoeran egonik haiekin harremanetan dauden familiekiko, hala beren barne-harremanean nola familiei buruzko beren epai eta erabakien zuzentasuna kanpotik berrikusi behar dutenekiko proiektioan. Funtzionario horiei agintaritzako agenteen izaera emateak esan nahiko luke desoreka hori areagotuko litzatekeela, eta familiei zailtasun gehigarri eta nekez gaindigarri bat jarriko litzatekeela, nola baita agintaritzaren agente batek eginiko deklarazioen egiazkotasun-presuntzioa suntsitzearen betebeharraren prozesala.

66. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

70. bis artikuluko berri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe luke testua:

“70. bis artikulua. Haur eta nerabeek etxebizitzarako eta familiako bizitzarako duten eskubidea babestea.

Administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, familien ohiko etxebizitzaren utzarazpena etenik mantenduko dute, bai eta etxebizitzatik botatzea ere, noiz eta haien kideren bat adingabea denean, harik eta bizitoki-soluzio egoki bat bermatzen den arte, eta neurriak sustatuko dituzte, haien bidez bermatze aldera Haurren Eskubidearen Konbentzioan jasotako eskubideak, haren interes gailena aintzat harturik, bai eta Eskubide ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 11. artikuluan jasotakoak ere.

Bizitoki-soluzioek ezin izanen dute xedatu adingabea berezia izatea bere legezko tutoretza edo de facto zozko zaintza eta jagoletza duen pertsonarekin daukan elkarbizitzatik. Etxebizitzatik botatzearen edo utzarazpenaren etetea luzatu beharko da, ahalbidetze aldera adingabeak ikasurtea amaitzeko modua izan dezan.

Utzarazpen-prozedura judicial batean haur eta nerabeek 11 urte baino gehiago izanez gero, edo auzitegien aurrean agerraldia egiteko gaitasuna izanez gero, entzutea emanen zaie, eta haien ikuspegia prozeduran aintzat hartua izanen da. Baldin haurrak ez badu bertaratu nahi, edo ez badu auzitegien aurreko agerraldia egiteko gauza denik sentitzen, beste edozein bitarteko erabiliz bermatuko da haren iritzia entzuna edo aintzat hartua dela, hark hala nahi izanez gero, eta haren adina gorabehera.

Era berean, etxebizitzatik botatzea edo utzarazpena gertatzen den kasuetan, gertatu ondoren, administrazio eskudunak urgentziaz sustatuko ditu sostengu psikosozialeko neurriak, balizko inpaktu emozionala murriztearen, ezertan galarazi gabe beste zaugarritasun-egoera larri batzuk aintzat hartuak izatea”.

Zioak: Bortxazko utzarazpen batek eragotzi egiten du toki babestu bat eduki ahal izan dezaten, esperientzia traumatikoa eta indarkeriazkoa izateaz gain. Utzarazpen-egoeretan, lehenetsi beharrezkoa da adingabeek beren tutoreekin duten elkarbizitza.

67. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

71. bis artikuluko berri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe luke testua:

“71. bis artikulua. Jakinarazpen- eta salaketa-betebeharra eta erreserba.

1. Pertsona edo agintaritzak orok, eta, bereziki, beren lanbide edo eginkizunengatik adingabeekin lotura dutenek, adingabe baten indarkeria-, arrisku- edo balizko babesgabetasun-egoera bat detektatzen badute, edo haren eskubideak urratzen ari direla, hari beharrezkoa duen berehalako laguntza emateaz gain, agintaritzak eskudunari jakinaraziko diote, eta gertakariak delituzkoak izan ahalko balira, segurtasun indar eta kidegoei, Fiskaltzari edo agintaritzak judizialari, neurri egokienak har ditzaten, foru lege honetan xedaturikoarekin bat eta, kasua bada, haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko araudi organikoan ezarritakoarekin bat. Partikularren kasuan, jakinarazlearen anonimotasuna mantenduko da, hala nahi badu.

2. Betebehar hori zorroztasun bereziz daukate haur eta nerabeak artatzearen esparruko beren lanbide, funtzio edo karguagatik egoera horien berri, susmo edo ebidentzia duten pertsonak. Betebehar dute, osasungintzaren, hezkuntzaren eta gizartearen alorretako zentro eta zerbitzu publiko nahiz pribatuetako profesionalek, haur-babesgabetasuneko balizko egoera baten berri dutenean. Kasu horretan, gizarte-zerbitzu eskudunari gertakari berri eman beharko diete ahalik eta lasterren, urgentziaz; eta, gertakari larritasunagatik komenigarria denean, administrazio eskudunari kasuari buruz eman beharko diote eskatzen den informazioa. Indarkeria horren ondorioz suertatzen denean adingabearen osasuna edo segurtasuna mehatxupean dagoela, berehala jakinarazi beharko diete segurtasun indar eta kidegoei edo fiskaltzari.

3. Adingabeekiko ohiko kontaktua daukaten lanbide, ogibide eta jardueretara iristeko eta haietan aritzeko baldintza izanen da ez egotea epai irmoz zigortuta sexu-askatasunaren eta kaltegabatasunaren aurkako delitu batengatik, horren barne direla sexu-eraso eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexuy-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeen galbideratzea eta gizakien salerosketa. Horretarako, aipatu lanbide, ogibide edo jardueretan sartu nahi duenak inguruabar hori frogatu beharko du delitugile sexualen Erregistro zentralaren ziurtagiri negatibo bat aurkeztuz”.

Zioak: Beharrezkoa da argi uztea sistema desberdinetako profesionalek eta hiritarrek daukaten erantzukizun partekatua haur eta nerabeen aurkako indarkeria- edo babesgabetasun-egoeren detekzioan, jakinarazpenean eta berehalako artatzean.

68. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

72. artikuluko 1. apartatuko ñ) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu bereko i) letrako 2. puntuan jadanik jasotako arrazoia.

69. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarri berri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe luke testua:

“Xedapen gehigarria.

Haur- eta nerabe-alorreko erakunde komunitarioek kudeaturiko Komunitate Ekintza Prebentiboko Zerbitzuak txertatzea Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako Itun Sozialak arautzen dituen azaroaren 16ko 13/2017 Foru Legean”.

Zioak: Legearen garapen osoan argi uztea Komunitate Ekintza Prebentiboko Zerbitzuen langintza eta funtzionamendua, eta zerbitzu hori 13/2017 Foru Legean jasotzen diren itunen artean txertatzearen beharra.

70. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Izenburua aldatzeko zuzenketa.

Legearen izenburua aldatu eta honela gelditu da idatzita:

“Foru Lege proiektua, haur eta nerabeei eta haien familiei arreta eta babesa eman eta haien eskubideen urraketa prebenitzekoa”.

Zioak: Legearen izenak haren funtsezko parte bat jaso behar du, oraindik ageri ez dena. Haurrak eta haien familiak babesgabetzen dituzten eta eskubideen urraketa ahalbidetzeko modukoak diren egoeren prebentzioa.

71. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hirugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko hirugarren paragrafoa aldatzen da. Hona testua:

“Batetik, egoitza edo aldi baterako bizilekua Nafarroan duten adingabeak izateagatik Nafarroako Administrazio Publikoengandik beren familiaren esparruan babes integrala jasotzeko eskubidea duten haur eta nerabe guztiak; babes horrek esan nahi du, Konbentzioak eskubideen subjektu eta beren bizitzen protagonista nahitaezkoak diren aldetik ematen dizkien eskubideak aitortu eta haien egiazko egikaritzea zaintzea ez ezik, haien familiak ere babestu beharra dagoela, familia horiek izaki haien eskubideak lehenik eta behin aldeztu behar dituztenak, betiere ulerturik interes gailena adingabeena dela”.

Zioak: Gizakien babesaren eskalan, lehenbiziko postua haien familiek betetzen dutena da. Adingabeak beren eskubideen titular dira, baina haien familiak dira eskubide horien lehenbiziko zaintzaile izan behar dutenak. Horregatik, Nafarroako administrazio publikoak behartuta daude adingabeak babestu eta haien eskubideak aitortu eta zaintzera, aldi berean haien familiei sostengu emanaz, familiak baitira adingabeen bilakaerak izan behar duen babeseremua. Sostengu hori ez da eman behar adingabea bere familiarengandik jada bereizi denean, baizik eta baita lehenago ere.

72. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko laugarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko laugarren paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Bestetik, Konbentzioak berak dakarren beste jardun-eremua da babes sistema bat bermatu beharra, erabakiko duena, beharrezkoa denean eta salbuespeneko kasuetarako bada ere, adingabeak beren familietatik bereiztea, adingabe horien interes gorenaren izenean. Nolanahi ere, bigarren eremu honetan egoera irregularraren paradigma gainditzeko asmoa dago, helburu nagusia ez dadin izan zaurgarritasun egoerak sortzen dituzten gabeziei erantzutea, baizik eta familien eta adingabeen gaitasunetatik abiatzea, horiek osatu eta laguntzeko behar diren baliabide guztiak erabiliz, eta ikuspegi integralari gurasotasun positiboaren printzipioa gehitzea”.

Zioak: Paternalismoari buruzko aipamena ezabatzen da, erdeinuz erabiltzen delako.

73. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko zazpigarren paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Zioen azalpeneko zazpigarren paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“Eta jarduketa horietan guztietan, une oro, presentzia izan eta ekintza gidatzeko baliatu beharko dira pertsonarengan zentratutako arreta, ikuspegi etiko ezin utzizkotzat hartuta, eta adingabeen beren parte-hartzea”.

Zioak: Lehenbiziko parte ezabatzen da, haurrekiko ekintzan maila berean ipintzen baititu Administrazioa eta familiak, eta azken horiei familiasun-modu jakin bat inposatzen baitie.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Abereen Osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2022ko urtarrilaren 14ko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 1. apartatua, 28. artikulua-
ren errubrika, aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“28. artikulua. Distantzia eta gehienezko ekoizpen-ahalmena”.

Zioa: 28. artikulua-
ren errubrikaren testua hobetzea “gehienezko ekoizpen-ahalmena” erabili-
lita “gehienezko neurriak” erabili beharrean.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 1. apartatua, 28. artikulua-
ren 1. paragrafoa, aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Abeltegiak erregelamenduz ezartzen diren distantziak gordeko dituzte bai haien artean bai haietatik abere kontzentrazioetarako instalazioetara eta abeltzaintzaren arloko jarduera agroindustrialek edo haiekin lotutakoetara bitarte daudenak. Distantzia horiek zehazteko, kontuan hartuko dira inguruabar geografikoak eta abere espezieen ezaugarriak, gehienezko ekoizpen-ahalmena, ustiategiaren neurria, ustiategi mota, ustiategiaren izaera intentsiboa edo estentsiboa eta arrisku epidemiologikoa”.

Zioa: 28. artikulua-
ren testua hobetzea, termino batzuk aldatuta eta ustiategiaren izaera intentsiboa edo estentsiboa aintzat hartuta abeltegien artean gorde beharreko distantziak erregelamendu bidez zehazteko irizpide gisa.

3. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 2. apartatua, 28. artikulua-
ren 2. paragrafoa, aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Abeltegiarako gehienezko ekoizpen-ahalmen batzuk ezartzen dira, ustiategi berrien edo orain dauden handitzeen neurriak ez daitezkeen izan foru lege honen 1. eranskinean ezartzen diren gehienezkoak baino handiagoak”.

Zioak: 28. artikulua-
ren idazketa hobetzea.

4. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 1. apartatuari paragrafo bat, hirugarrena, gehitzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“3. I. eranskinean adierazitako gehienezko ekoizpen-ahalmena aplikatzekoa izanen zaie bai abeltegi berriei bai lehendik dauden abeltegiak handitzen direnean ere. Edonola ere, abeltegietan ezin izanen da instalazioen aldaketarik edo ekoizpen-norabidearen aldaketarik egin, horiek gehienezko ahalmena handitzea ekartzen badute”.

Zioak: paragrafo honekin 28. artikulua-
ren idazketa hobetzen da.

5. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 3. apartatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hiru. I. eranskin berri bat gehitzen da, testu honekin:

I. ERANSKINA

Abeltegien gehienezko ekoizpen-ahalmena (AzLU edo toki kopuruaren arabera)

Ustiategiaren neurria	AzLU (1) / tokiak
Txerri-azienda	Azienda larriko 720 unitate
Broiler oilaskoak eta hegaztiak oro har	204.000 toki
Arrautzetarako eta hazteko oiloak	204.000 toki
Ugalketarako oiloak eta haiak haztea	40.800 toki
Kanpora irteten diren hegaztiak	34.000 toki
Galeperrak	408.000 toki
Esnetarako behiak	850 AzLU
Haragitarako behiak (2)	850 AzLU
Esnetarako ardi eta ahuntzak	6.000 ugaltze-abere
Haragitarako ardi eta ahuntzak	8.000 ugaltze-abere
Zaldiak	850 AzLU
Untxiak	408 AzLU
Erleen kokalekua (3)	200 erlauntza
Espezie bat baino gehiago dituzten ustiategiak	850 AzLU

(1) AzLU. Koadro honetako AzLUak kalkulatzeko, aintzat hartuko dira 31/2019 Foru Dekretuaren 1. eranskinetako AzLUen baliokidetzak.

(2) Zezenketetarako aziendaren ustiategiak barne.

(3) Gehieneko neurriak erleen kokalekuenak dira, baina ustiategi batek berak kokaleku bat baino gehiago izan ditzake.

Zioak: Uste dugu egokiagoa dela abeltegien gehienezko ekoizpen-ahalmena mugatzea, halako moduz non legearen aldaketa baliatuko baita abeltegi guztien gehienezko muga zehazteko Nafarroan.

6. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarraren 4. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: 1. Apartatuari hirugarren paragrafo bat gehitzea baino hobeto iruditzen zaigu, testuaren idazketa hobetzen du, baita bere kokapen sistematikoa ere; izan ere, ekoizpen-ahalmena areagotzea dakarten handitzeek edo ekoizpen-norabidearen aldaketek ezin izanen dituzte gaitu I. eranskinetako mugak, kasuko zuzenketan adierazten den moduan.

7. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bakarreko 5. apartatua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Arau iragankor honek ez du zentzurik foru lege hau onetsi ondoren abeltegien gehienezko ekoizpen-ahalmena mugatu behar bada – horregatik onetsi zen, hain zuzen, maiatzaren 10eko 8/2021 Foru Legea–, eta, zehazki, behi-aziendaren kasuan, foru lege proiektuaren arabera inoiz ezin izanen dira 1.250 AzLU baino gehiago izan, lehendik horretarako baimena eman den kasuetan izan ezik, eta gure zuzenketa bat onetsiko balitz, ezin izanen dira 850 baino gehiago izan.

